

# BIGE Gurasoen Elkarteak

## Estatutoak



### EGITARAU ADIERAZPENA

BIGE Gurasoen Elkarteak Federakundea, kalitatezko Euskal Eskola Publikoaren aldeko lana koordinatzeko dagoen beharrazatik eta partaide guztien borondateen batasuna eta elkarrekiko begirunean oinarriturik eratu da.

Eskola Euskalduna, Autonomoa eta Kudeaketa Demokratikokoa, berdintzailea, gurasoek eta familiek hezkuntza prozesu osoan parte hartuko dutela eta gainerako Hezkuntza Komunitatearekin batera erabakitze gaitasuna defendatuko duena; irakaskuntzaren kalitatea etengabe hobetzea ahalbidetuko duen eta seme-alaben heziketarekin zerikusia daukaten gai guztietan, didaktika, teknika zein antolakuntza arloetan.

Parte aktibo eta erantzukizunezko honek ikastegi bakoitzak berezko dituen hezkuntza Proiektuak eta hizkuntz proiektu integratuak sustatuko ditu eta berauek gauzatzeko lagungarri izango da Hezkuntza Komunitateko gainerako estamentuentzat. Eskola ingurune sozialean sartzea sustatuko du berau gizarte eta kultur sektoreetara zabaltzea eraginez; halaber, hezkuntza eta kultur identitate bereko beste lurralde eta gizarte eremuena ere. Proiektu berritzaileak defendatuko ditu, eskumenak garatzea erraztuko du, lehiakortasun garbia sustatuko du eta hezkuntzarako eskubideaz planteatzen den ikasle guztien berdintasuna (ez uniformetasuna) hobetuko duten neurri konpentsatzaileak lortzeko lana egingo du.

Horretan oinarrituz, gurasoek eta kasu bada, ikasleek ikastegia askatasunez erabakitzeko eskubidearen alde egingo du, norbanakoen eta gizartearen beharriaz erantzuneko dien sare publikoa zero urtetik 18 urtetara sustatuz.

Federaturiko Elkarteek autonomia osoz garatuko eta antolatuko dituzte beren iharduerak.

Federazioak baliagarritasunez hartutako erabakien defentsa eta burutzapena Elkarteek beren borondatez gauzatu dituzte beraiei dagozkien gaitan. Akordioak ez betetzea Estatutu hauek xedatutakoaren arabera baino ez da zehaztuko.

## LEHENENGO KAPITULUA

### IZENDAPENA



**1. Artikulua.- BIZKAIKO Gurasoen Elkarteak, Federación de Asociaciones de Padres y madres de alumnas y alumnos de Bizkaia**, egoitza: Bilboko Ronda kalea 27, 1. ezk. Erregistro zenbakia: F-4, 1978ko ekainaren 21ean inskribatuta, Euskadiko Elkartetako 7/2007 Legea, ekainak 22koa, eta 1/2002 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Elkartzeko Eskubidea arautzen duena, Euskal herriko Autonomia Estatutuaren 9 eta 10.13 artikuluetan ezarritakoaren arabera Federakundeak bere Estatutuak berriztatzen ditu.

Irabazasmorik ez daukan Federakunde hau, Elkartei buruzko aipatu Legearen manuek, Estatutu hauek (Legearen aurkakoak ez direnean), Federakundeko gobernu organoek baliagarritasunez hartutako erabakiek (Legearen edota Estatutuen aurkakoak ez direnean) eta Eusko Jaurlaritzak onartzen dituen arauzko xedapenek (jite ordeztaila edukiko dutenek) arteztuko dute.

Federakundea beratan sartu nahi duten Bizkaiko Ikastegi Publikoetako Ikasleen Guraso Elkarteek osatuko dute, Federakundearen xedek eta Estatutuen edukia onartzen badituzte.



## ELKARTEAREN XEDEAK

### 2. Artikulua.-

1.- Euskal Eskola Publikoaren Ikastegietako ikasleen gurasoek ikastegi hauetako ihardunean parte hartzeko eskubidea sustatu eta defendatzea.

2.- Hezkuntza humanistiko eta zientifikoa lortzea, kalitate handikoa (izpiritu kritiko librea garatuko duena).

3.- Kulturalki Euskal Herrian sustraituta egongo da, eta aldi berean kulturartekotasuna defendatuko du era dinamiko eta sortzailean, eta ingurune sozial, politiko eta ekonomikoan erabat integratuta; aktiboki ihardungo du identitate kulturala - hizkuntza, zentzu historikoa, e.a. – berreskuratzen.

4.- Doakoa izatea, baldintza berdinetan eta fondo publikoez finantzatua. Bertan kontuan hartuko da ikasleen prestakuntza osoa (doakotzat hartzen dugu irakaskuntzaz gain, honen inguruko iharduera, testu liburuak, eskola materiala, jantoki zerbitzua, garraioa, eta abar hartzen dituen).

5.- Autonomia, demokratikoa eta pluralista, Hezkuntza Komunitateko gainerako estamentuenarekin batera gurasoen partaidetza kontuan hartuko duena.

6.- Aukera berdintasuna, inolako baldintzarik gabe, gauzatuko duena eta berdintasunerako planak sustatuko duena.

7.- Adierazpen askatasuna Hezkuntza Komunitate osoan bermatuko duena, arrazoi ekonomiko, juridiko edo sozial, sexu, arraza edo bestelakoengatik bereizketa eza, bermatuko duena.

8. - Derrigorrezko eskolatzea lortzea, bi hizkuntza ofizialetan ezagutza eta erabilera bermatuko duena, halako eraz non ikasleek haietako edozeinetan ikasten jarraitzea askatasunez erabaki ahal izango duten.

9.- Gurasoen eskariei erantzungo dien Haurrentzako Hezkuntza eskaintza osoa exigitzea. Halaber, ikasleriarentzako erantzun egokia exigitzea hauexek derrigorrezko hezkuntza bukatu eta lan munduan sartu arte.

**3. Artikulua.-** Helburu horiek betetzeko honako iharduera hauek burutuko dira legeak ezartzen dituen beharkizunak bete ondoren.

- a) Irakaskuntza publikoari dagozkion xedapenetan, halaber berauen gauzatzean herri, herrialde, Autonomi Elkarte, eta beste edozein Erakundetan parte hartzea.
- b) Hezkuntza Sistema ukitzen duen orotan Elkartearen interesak ordezkatu eta defendatzea.
- c) Federakunde honetakoak diren Eskualde, Herri eta Zentroko Elkartearen ahalegin, kezka eta nahiak sustatu eta koordinatzea.
- d) Gurasoen prestakuntza gizabidezko eta intelektuala hobetzeko balio duten kultur iharduera oro sustatzea.
- e) Euskara eta Euskal Herriko kultura sustatzea.
- f) Ez dauden zentroetan, Elkarteak sustatzea.
- g) Genero berdintasunerako planak sustatzea.
- h) Gure inguruneko kultur desberdinen arteko lotura bultzatzea.
- i) Berrikuntza eta etengabeko prestakuntza sustatzea.
- j) Ezarritako helburuak ezagutzen eta haiekin inplikazioa bilatzen laguntzen dituen komunikazio kanalak bilatzea.
- k) Era berean, eskudun Erakunde eta Irakaskuntzarekin zerikusia daukaten agintarien aurrean kudeaketak eginez Irakasleen hobekuntza eta sakontzea bultzatzea.
- l) Integraziorako zabalik egongo da Asanblada Orokorrean akordioa hartu ondoren, beste erakunde kideekin, eratuak edo geroan eratu daitezkeenekin.
- m) Eta proposaturiko xedeak lortzeko beharrezkoa den beste edozein.



Aurreko atalean deskribaturiko ihardueren kalterik gabe, Federakundeak honakoa egin dezake bere xedeak betetzeko:

- Xedeak bete edo helburu hori daukaten baliabideak eskuratzeko mota guztietako iharduera ekonomikoak.
- Mota guztietako ondasunak edukitzea edozein titulurengatik, bai halaber mota guztietako egintza eta kontratuak egitea.
- Legeak edo Estatutuekin bat datozen edozein ekintzatan ihardutea.

## BIGARREN KAPITULUA

### EGOITZA

**4. Artikulua.-** Federakunde honen egoitza nagusia Bilbon egongo da, Ronda 27, 1. ezk. Federakundeak beste lokal batzuk erabili ahal izango ditu Autonomi Elkartearen zein bertatik at, Aparteko Asanblada Orokorrak hala erabakitzen badu.

Egoitza edo Federakundeak leuzkaketen gainerako lokalen aldaketak Zuzendaritza Batzaren erabakiz egingo dira. Honek Elkartearen Erregistroari jakinaraziko dio helbide berria.

Zuzendaritza Batzordeak erabaki beharko ditu herri aldaketarik suposatuko ez duten egoitza eta gainontzeko lokalen aldaketak. Elkartearen Erregistroari jakinaraziko dio aldaketa.

### LURRALDE EREMUA

**5. Artikulua.-** Bere eginkizuna Bizkaia Lurralde historikoan burutuko du batik bat.

### IRAUPENA ETA IZAERA DEMOKRATIKOA

**6. Artikulua.- Bizkaiko Gurasoen Elkarte, Federación de Padres y Madres de Bizkaia** izeneko Federakundeak izaera iraunkorra dauka, eta Aparteko Asanblada Orokorraren erabakiz baino ez da desegino, VII kapituluak



*Talantza Sarriena*

*Ortiz Beate*

xedatzen duenaren arabera edo Legeek aurrakusten dituzten beste edozein ziorengatik.

## HIRUGARREN KAPITULUA

### GOBERNU ETA ADMINISTRAZIO ORGANOA

**7. Artikulua.-** Federakundearen gobernu eta administrazioa honako organo kolegiatuen esku egongo da:

- Bazkideen Asanblada orokorra, organo gorena
- Zuzendaritza Batza, zuzendaritzako organo kolegiatu iraunkorra.

#### Asanblada Orokorra

**8. Artikulua.-** Asanblada Orokorra, bazkide guztiek osatzen dutena, hauen borondatea agertzeko organoa da. Aparteko eta ohiko eraz bilduko da.

**9. Artikulua.-** Ohiko Asanblada Orokorra gutxienez urtean behin bilduko da Federakundearen iharduera egitasmoa, aurreko urteko gastu eta irteerei dagozkien kontuen egoera eta hurrengo urteko ekitaldirako aurrekontua onartzeko. Asanblada Orokorrak Zuzendaritzaren Batzaren kudeaketa ere onartuko du eta honek beti haren gida lerroei jarraikiz eta kontrolpean ihardun beharko du.

**10. Artikulua.-** Aurreko artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe, Asanblada Orokorraren eskumenekoak dira honako honi dagozkion akordioak:

1. Estatutuen aldarazpen eta aldaketa, hurrengo artikuluan xedatzen denari jarraikiz.



*Paloma Sarriena*

*Quel Bente*

2. Zuzendaritza Batzaren hautaketa eta bere berrautaketa.
3. Kasu bada, Federakundea desegitea.
4. Eskatzen duten elkarte baxa berrestea
5. Beste Elkarte batzuekin federatu edo konfederatzea edo hauetako baten batetik irtetea.
6. Federatutako Elkarteek ordaindu beharreko ohiko eta aparteko kuotak zehaztea.
7. Jagoletza Kontseiluaren izendapena, bidezkoa bada.

*Patricia Sarriena*

**11. Artikulua.-** Aparteko Asanblada Orokorra Zuzendaritza Batzak eraikitzen duenean egingo bada, bere ekimenez edo bazkideen hamarren batek eskatzen duelako, bileraren zio eta xedea adieraziz edo, edozein kasutan, honako giza hauen berri eman eta erabakitzeko:

- a) Estatutuaren aldarazpenak
- b) Federakundearen desegitea
- c) Ondasunen baliatze eta besterentzea
- d) Federakundea eta erabilgarritasun izendatzea eskatzea.



*Olivia Bente*

Eskaera idatziz egingo zaio Federakundeko Lehendakariari eta honek eskaera egin ondorengo 30 egunetan egingo du deia. Deialdia Federakundearen Idazkaritzaren bidez egingo da beti.

**12. Artikulua.** - Asanblada Orokorretarako deia – ohikoak zein ez ohikoak izan– idatziz egingo da eta bertan bilera egingo den tokia, eguna eta ordua adieraziko dira gai-zerrendarekin batera. Deialdia egiten den eguna eta Asanbladaren lehenengo deialdirako zehaztutako egunaren artean hamabost eguneko tartea egongo da gutxienez. Era berean adieraz daiteke ere, hala suertatuko balitz, Asanbladarako bigarren deialdia noizko den; bilera bien artean ez da ordu erdi baino gutxiagoko tartea egongo.

Iragarpenean bigarren deialdirako data adierazi ezean, bilera eguna baino bi egun lehenago egin beharko da.

**13. Artikulua.-** Asanblada Orokorrak – ohiko zein apartekoak – baliagarritasunez eratutzat emango dira lehenengo deialdian elkarkideen arteko erdia gehi bat agertzen denean, bertan izanda zein ordezkaturik; eta bigarren deialdian etorle kopurua edozein delarik. Gehienez Elkarteko 3 ordezkari bertarutzen diren Elkarte Federatu guztiek osatzen dituzte.

Bazkideek beste edozein bazkideri esleai diezaiokete Asanblada Orokorrera joateko ordezkaritza. Ordezkaritza hori idatziz esleituko da eta Asanbladarako Idazkariaren esku egon beharko du bilera hasi baino ordu erdi lehenago gutxienez. Elkarteak egoitza duen herria ez den beste batean bizi diren bazkideek postaz bidal dezakete ordezkaritza ziurtatzen duen agiria.

**14. Artikulua.-** Asanblada Orokorretako erabakiak gehiengoz hartuko dira. Berdinketa gertatuz gero Presidentziak erabakiko du kalitateko botoaz. Bederatzigarren artikuluari dagozkion erabakiak hartzeko bazkide etorlearen 2/3en aldeko botoa behar izango da. elkarte bakoitzak boto bat edukiko du.

## ZUZENDARITZA BATZA

**15. Artikulua.-** Zuzendaritza Batza Federakundearen ordezkaritza, kudeaketa eta administrazio organoa da. Gizarte jarduerak irauten duen bitartean haren xedeak bete eta interesak bide onetik doazela jagongo du zuzenean eta iraunkorki; Estatutuak betearaziko ditu eta Asanblada Orokorraren erabakiak gauzatu ditu. Kultura, ekonomia eta harreman publikoei dagozkien arloak kudeatuko ditu.

Zuzenki Zuzendaritza Batzak Estatutu hauetako 3. artikuluan aurreikusitako jarduerak antolatuko ditu; Federakundearen beraren diru-sarrera eta ordainketak egingo ditu eta Federatutako Elkarteek egiten duten ahaleginaren



berri emateaz arduratuko da, 24. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Zuzendaritza Batza Lehendakartzak, Lehendakartza-ordeak, Idazkaritzak, Diruzaintzak, 6 bokalak, hezkuntza etapa bakoitzeko ordezkariak osatzen dute.. Gehinezko juntakide kopurua 16 izango da.

Hiru hilabetean behin gutxienez eta gizarte jardueren garapen egokirako behar den guztietan bilduko da. Zuzendaritza Batzaren bilerak irekiak izango dira, lantzeko gaien izaeratik Batzak besterik erabakitzen duenean izan ezik.

*Paloma Sena*  
**16. Artikulua.-** Zuzendaritza Batza osatzen duten kideak Asanblada Orokorrak hautatuko ditu eta bi urteko iraupena izango dute –Asanbladak berak espresuki ezeztatzen ez badu-, eta denboran mugarik gabe berrautatu ahal izango dira.

Zuzendaritza Batzako funtzioetan aritzea dohakoia izango da, nahiz eta Legea jarraituz kargua burutzeagatik ordainsariak (bidaiak, janariak...) jaso ahal dituzte Zuzendaritza Batzarkideek ez dute inongo saririk jasoko beraien betekizunen truke.

**17. Artikulua.-** Zuzendaritza Batzarkide izateko honako betekizun hauek bete behar dira:

- a) Estatutuen arabera hautatua izatea
- b) Entitateko bazkidea izatea
- c) Adinez nagusi eta eskubide zibil guztiak edukitzea.



*Quetz Beute*  
**18. Artikulua.-** Zuzendaritza Batzarkide kargua Asanblada Orokorrak behin hautatu, onartu eta kargu hartzea gauzatzen denean norberaganatuko da.

**19. Artikulua.-** Zuzendaritza Batzako kideek honako kasu hauetan utzi beharko dute kargua:

- a) Agintaldia amaitzean
- b) Dimisioa
- c) Bazkide izaera galdu edo ezintasun kasuan
- d) Estatutu hauetako 16. artikulua xedatzen duena aplikatuz Asanblada Orokorrak ezeztatzean.
- e) Heriotza dela eta.

Kargu uztea a) atalean aurreikusitakoagatik gertatzen denean, Zuzendaritza Batzako kideek ihardunean jarraituko dute lehenengo Asanblada Orokorra egin arte eta honek kargu berriak hautatuko ditu.

b) c) d) eta e) balizkoetan Zuzendaritza Batzak berak hornituko du kargu hutsa behin behineko izendapen baten bidez; izendapen hau Asanblada Orokorrak berretsi edo ezeztatu behar du eta berak hautatuko ditu kargu berriak.

Organo honen osaketan egiten den aldaketa ororen berri Elkartearen Erregistroari eman behar zaio.

**20. Artikulua.-** Zuzendaritza Batzak honako eginkizun hauek dauzka:

- a) Federazioaren ohiko kudeaketa aztertzea, Asanblada Orokorraren ildoari jarraituz eta haren kontrolpean.
- b) Federakundeak garatu beharreko jarduerak programatzea.
- c) Urteko irteera eta sarreren aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera Asanblada Orokorrari aurkeztea honek onar ditzan
- d) Asanblada Orokorraren bileren gai-zerrenda egitea eta ohiko zein ez ohiko Asanblada Orokorrarako deialdiak erabakitzea.
- e) Bazkideen proposamen edo iradokizunei jaramon egin eta horren inguruan beharrezko neurriak hartzea.
- f) Asanblada Orokorrari esleitu ez zaion beste edozein.



**21. Artikulua.-** Zuzendaritza Batzak Presidenteak edo Presidenteordeak kasu bada, zehazten duen beste aldiz egingo ditu bilerak, beraren ekimenez edo osakideetako edozeinek hala eskatuta eta beti ere, eta gutxienez, astebete aurrerapenez. Zuzendaritza Batza honek Presidenteak edukiko du buru eta Presidenteordea bera ez dagoenetan; biak ez egotekotan xede horretarako izendatutako Batzarkideak.

Batzaren erabakiak baliagarriak izan daitezten etorritakoen gehiengoaren botoa eduki behar dute eta derrigorrezkoa da kideen erdia bertan egotea.


Idazkariak edo izendatutako pertsonak bileren akta jasoko du eta dagokion liburuan idatziko da.

**22. Artikulua.-** Zuzendaritza Batzak ezin izango du ondasun higiezinik besterenganatu, ez eta aurrekontuaren %20tik gorako mailegurik jaso ere Ez Ohiko Asanblada Orokorraren aldeko erabakirik gabe.

Ohiko Asanblada Orokorrak onartutako aurrekontuaren barruan, baina muga horrekin, Zuzendaritzak erabilpenerako ahalmena edukiko du. Kargutze, idazki eta faktura guztiek Presidente, Diruzain edo izendatutako pertsonaren baimena eduki behar dute.

Lokal alokairu, administrazio eta pertsonalaren kontratuak egin ditzake baina ez du eraginkortasunik izango Ez Ohiko Asanblada Orokorrak berresten ez dituen bitartean.

**23. Artikulua.-** Zuzendaritza Batzak meritudun kide izenda ditzake Federazioaren eta honek xedetzat dituen helburuen alde nabarmenki jardun eta Batzaren iritziz aipamen hori merezi dutenak. Hauek hizpidea baino ez dute edukiko.



*Paloma Sarasa*

*Osak Fornte*

**24. Artikulua.-** Zuzendaritza Batzak bere eginkizunak hobeto betetzeko egoki irizten dituen beste batzorde izenda ditzake eta hauei eginkizun jakin batzuk esleitu.

Zuzendaritza Batzordeak Zuzendari-Koordinatzaile Orokor bat kontratatu ahal izango du, honek ordainsaria jasoko du eta ez du federatutako elkarte baten kide izan beharrik. Kargu honetan delegatu ahal izango dira Zuzendaritza Batzordeari dagozkion lan guztiak, proiektuak koordinatu eta berriak aurkeztu ahal izango dira, baita lanerako planak eta kudeaketa ere. Berau izango da zuzendaritza administratiboaren arduraduna eta baita Federazioko pertsonalgoarena ere, Zuzendaritza Batzordeak eta asanblada Orokorrek ipinitako mugekin. Egiten duen lanaren berri eman beharko dio Presidentzia edo Zuzendaritza Batzordeari. Barne-araudian jasoko da lanpostu honen perfila.

## PERTSONA BAKARREKO ORGANOAK

### Presidentzia


**25. Artikulua.-** Presidentziak beraren legezko ordezkaritza dauka eta Zuzendaritza Batza eta Asanblada Orokorrek hartutako erabakiak betearaziko ditu, bietan presidentea baita.

**26. Artikulua.-** Presidententziari dagozkio Zuzendaritza Batzari edo Asanblada orokorrari esleitu ez zaizkion ahalmenak, eta batik bat, honakoak:

- a) Zuzendaritza Batzak eta Asanblada orokorrak egiten dituzten bileretarako deia egin eta amaitutzat eman; bateko zein besteko deliberazioak bideratu eta bozketetan berdinketa gertatuz gero, kalitateko botoaz ebatzi.
- b) Zuzendaritza Batzari Elkartearen jarduera egitasmoa proposatu eta haren zereginak sustatu eta aztertu.

*Rolando Sarriena*

*Quel Poente*



- c) Baliagarritasunez erabakitako ordainketak agindu.
- d) Premiaz sor litezkeen arazoak ebatzi eta Zuzendaritza Batzari horren berri eman egingo den lehenengo bileran.

### Presidenteordetza

**27. Artikulua.-** Presidentziaordetzak Presidentzia urgatziko du eta honek bere kargua bete ezin duenean ordeztu egingo du. Era beran, Presidentziak espresuki berarengan eskuordetzen dituen ahalmen guztiak dagozkie.

### Idazkaritza

**28. Artikulua.-** Idazkaritzak sarrera-eskaerak zehazki jaso eta izapidetzea dagokio; fitxategia eta Bazkideen Erregistro –liburua eramatea, aktak jasotzea eta Akta-liburuaren jagotza.

Era beran, Elkarteei buruz indarrean dauden legezko xedapenak betetzen direla jagongo du; Entitatearen dokumentazio ofiziala zaindu, liburu eta gizarte artxibategietako edukia ziurtatu eta Zuzendaritza Batzaren izendapena eta egoitza aldaketei buruzko arauzko jakinarazpenak dagokion agintaritzara helaraziko ditu.

### Diruzaintza


**29. Artikulua.-** Diruzaintzak egindako diru sarrera eta ordainketen berri emango du, sarrera eta irteeren urteko aurrekontua gauzatuko du bai eta aurreko urteko kontuen egoera ere. Hauek Zuzendaritza Batzari aurkeztu behar dizkio, honek Asanblada Orokorrari onetsi ala gaitzesteko, aurkez diezazkion.

### Mahaikideak

**30. Artikulua.-** Mahaikideek Zuzendaritza Batzak esleitu zizkien karguak beteko dituzte.

*Palomira Sarriena*

*Quil Foente*



## LAUGARREN KAPITULUA

### BAZKIDEEI DAGOKIENEZ: ONARTU EDO KANPORATZEKO PROZEDURA

**31. Artikulua.-** Kide izan nahi duten eta ondorengo baldintzak betetzen dituzten Elkarteak izan daitezke Federazioko partaide:

- Honakoarekin batera idatziz eskatzea
- b) Federazioan sartzeko eskariaren aldeko iritzia adierazten duen Batza Nagusiaren Aktaren kopia edo ziurtagiria, ordezkariaren izena adieraziz.
- c) Zuzendaritza Batzarkideen izenen zerrenda.
- d) Elkartearen Estatutuen kopia, Elkartearen Probintziako erregistro zenbakia eta egoitza ere adierazita.
- e) Elkarteko kide kopurua
- f) Dagokion zentroa.
- g) Asanblada Orokorra onartzen duen kuota ordaintzea.



**32. Artikulua.-** Federazioa, bera osatzen duten Elkarte guztien berdintasun printzipioan funtsatzen da.

**33. Artikulua.-** Elkarte bakoitzak askatasun osoz eta bere borondatez erabakiko du Federazioan sartzea edo bertatik ateratzea.

**34. Artikulua.-** Federazioak eskualde elkarketa bultzatuko du, eskualdeko koordinadorak osatuz. Federazioak bertako kide dituen Elkarteetako bakoitzaren autonomia errespetatuko du, beraien barneko kontuetan esku hartu gabe.

**35. Artikulua.-** Bizkaiko Ikasleen Gurasoen Elkartearen Federazioak, BIGE Gurasoen Elkarteak, badu beste federazio batzuekin konfederatzerik.

*Paloma Sarano*

*Olivia Bente*

## BAZKIDEEN ESKUBIDE ETA EGINBEHARRAK

### 36. Artikulua.- Elkartekide orok ondorengo eskubideak dauzka:

- 1) Elkarteei buruzko Legea edo Estatutuak urratzen dituzten erabaki eta jardueren kontra egitea; horretarako epea egutegiko berrogei egunetakoa da, demandatzaileak kontra egindako erabakien edukia jakin duen edo jakiteko aukera izan duen egunetik zenbatuz.
- 2) Gainerako Federazio kideen identitatea, sarrera eta irteerei buruzko kontu egoera eta Elkaratearen jardunaren garapena noiznahi ezagutzekoa.
- 3) Asanblada Orokorretan hitza eta botorako daukan eskubidea erabiltzekoa eta horretarako beste kide batzuei bere ordezkaritza eman diezaieke ere.
- 4) Federazioaren Zuzendaritza Organoetan parte hartzeko, honako Estatutuekin bat eta berrietako hautesle eta hautagarri izatekoa.
- 5) Indarrean dagoen legerian aurreikusitako bazkideen fitxategian agertzekoa eta, baldin balego, Elkaratearen ikur bereizgarria erabiltzekoa.
- 6) Estatutuetan eta, baldin balego, Barne Erregimenari buruzko Araudiaren ale bana edukitzekoa eta Zuzendaritza organoen aurrean eskariak eta kexak aurkeztekoa.
- 7) Gizarte ekintza kolektiboetan parte hartzekoa eta bazkideen eskura dauden gauzak (egoitza, liburutegiak...) Zuzendaritza Batzak ebazten duen moduan gozatzekoa.
- 8) Diziplina neurriak hartu baino lehen idatziz entzuna izatekoa eta aipatu neurriak –bazkide izateagatik daukan eginbeharrak ez betetzeak soilik arrazoi ditzakeenak- sorrarazi dituzten zioen berri izatekoa.
- 9) Federaziotik legeria, hezkuntza eta kultura arloan bazkideentzat interesgarri izan daitezkeen gaietarako buruzko informazioa jasotzekoa.
- 10) Afiliazioak sorraraz ditzakeen onuretan izateko eta diru-mozkinak izanez gero, dagokin zati proportzionala jasotzekoa.
- 11) Federazioak beraren autonomia errespetatu eta barne kontuetan esku

*Paloma Sarriena*

*Osvaldo Pente*

har ez dezan, beti ere horiek Asanblada Orokorrak ebatzitako irizpideetan eraginik ez badaukate.

12) Edozein momentutan baja emateko aukera, bete behar diren konpromisoei kalterik gabe.

13) Estatutuei eta Legeari atxikiz ematen diren gainerako eskubideak erabiltzekoa.

**37. Artikulua.-** Hona hemen bazkideen eginbeharrak:

a) Federazioaren helburuak lortzearen alde aktiboki jardutea.

b) Gastuei eutsi ahal izateko, Asanblada orokorrak ezartzen dituen kuotak ordaintzea.

c) Honako estatutuei eta Federazioaren organo artezkariek baliagarritasunez hartutako erabakiei men egin eta betetzea.

**38. Artikulua.-** Ez dira Federazioaren erantzukizun izango edozein Elkarte Federatuk burutzen dituen aldebakarreko egintzak, berauek bakarrekoak izan zein ez.

Federazioak bere gobernu organoek Estatutuei atxikiz hartzen dituen erabakiak eta burutzen dituen egintzak baino ez ditu bere gain hartuko.

**39. Artikulua.-** Federazioak ezin izango die Elkarteek exijitu euren interesen aurka jotzen duten kontuetan laguntzea. Halaber, ezin izango du sustatu elkarte baten edo batzuen onura eta besteen kaltea ekar dezakeen ekintzarik. Edozer dela eta kaltea ekiditea ezinezkoa bada, interesaturiko elkarten artean aipatu kalteari eusteko txanda ezarriko da.

**40. Artikulua.-** Federazioaren Gobernu Organoak dira berari dagozkion kontuetan eskumena daukaten bakarrak; beraz, Elkarte Federatuek eta berauetako kideek guztiz



*Paloma Sarriena*

*Quil Bente*



debekaturik daukate gizarte komunikabideez (prentsa, irratia, TB) aipatu Gobernu Organoen eskumeneko gaiak zabaltzea.

## ZEHAPEN ERREGIMENA

**41. Artikulua.-** Zuzendaritza Batzak zehaztu ahal izango ditu bazkideak Estatutuak edo Asanblada Orokor zein Zuzendaritza Batzaren erabakiak behin eta berriz urratzeagatik.

Zehapenak, 15 egunetik hilabetera bitarteko epean eskubideak etetea edo behin betiko ohiltzea ere ekar dezake.

Ondore horietarako Presidentziak ikerketa egin dadin erabaki ahal izango du zehagarri daitezkeen jokoerak argitzeko. Jarduerak idazkaritzak egingo ditu eta honek Zuzendaritza Batzari neurri egokiak har ditzan proposatuko dio. Zehapenak ezartzea Zuzendaritza Batzaren eskumena da, eta interesatuak edo elkarteak eskubidea dauka gauzatu baino lehen entzuna izateko.


Beti kariren bat izan behar duen erabaki horren aurka errekurtsioa egin daiteke Asanblada Orokorraren aurrean, 37.1 artikuluan aurreikusitako ekintzen kalterik gabe.

**42. Artikulua.-** Ondorengo balizkoetan galduko da Federazio-kide izaera:

- Elkarte Federazio-kidearen desegiteagatik
- Elkarteak Asanblada Orokorrean hartutako erabakia Federazioko Presidentziari idatziz helaraziz; aipatu idazkian baja eskaria eskatzeko arrazoiak azalduko dira, eta eskariak ez du erabateko eraginkortasuna izango Federazioaren Asanblada Orokorrari jakinarazi arte.
- Honako Estatutuetatik eratorritako betebeharrak ekonomiko zein bestelakoak bete ezean.
- Indarrean dagoen legerian aurreikusitako gainerako zioak gertatzen direnean.

*Paloma Sarano*

*Quil Foente*



**43. Artikulua.-** Elkarteren batek edozein karirengatik Federazio-kide izateari uzten dionean, bertan zegoen bitartean zegozkion eskubide eta onurak galduko ditu eta berauek Federazioak gordeko ditu berarentzat.

## BOSGARREN KAPITULUA

### BALIABIDE EKONOMIKOEI DAGOKIENEZ

**44. artikulua.-** Federazioaren ondare soziala bere egoitza da, Bilboko Ronda 27-1. ezkerrean kokatua dagoelarik. Hauexek izango dira baliabide ekonomikoak.

- a) Elkarte Federatuen kuotaren zenbatekoa Asanblada Orokorrak erabakiko du Federazioaren beharrianekin eta elkartekideen ahalbideekin bat. Kuotaren zenbatekoa urtero berrikusiko da asanblada orokorrean.
- b) Entitate babesleen emariak eta estatu, herrialde zein udalerritik datozkeen dirulaguntzak, emanaz gero.
- c) Korrituak, fondoak eta fondoerrenta eta mozkinak.
- d) Sor daitezkeen beste kontzeptu batzuegatiko gainerako sarrerak. Sarrera horiek legeetan ezarritakoari atxikiz jasoko dira.

**45. Artikulua.-** Aurrekontua egutegiko urtebete naturalerako egingo da eta bertan, Federazioaren beharrianak hartuko dira kontuan. Asanblada Orokorrak onartuko du eta Ohikoa zein Ez Ohikoa izan daiteke. Asanbladan aurkeztu beharreko kontuen edukia barne araudiaren 4.art. garatuko da Urteko elkarte eta ekonomia ekitaldia egingo da eta urte bakoitzeko urtarrilaren 30ean itxiko da.

**46. Artikulua.-** Ikuskapen organoa da. "Jagotza Kontseilua" izeneko. Berau Zuzendaritza Batzarkide ez diren hiru ordezkari osatuko dute; Asanblada Orokorreko / kidedutako guraso elkarteko bateko kide izan beharko dute



*Paloma Sarriena*

*Quil Beate*

Hona hemen Jagotza Kontseiluaren eskumenak: kontabilitate liburuak eta, oro har, Federazioaren baliabide ekonomikoen erabilpena ikustatzea; Diruzainarengandik bere eginkizunak behar bezala betetzeko eskatzen duen informazio oro jaso ahal izango du. Ekitaldien balantze eta itxierak onartuko ditu bere oniritziarekin edo bestela izatera Zuzendaritza Batzari eta kasu bada, Asanblada Orokorrari jakinaraziko dizkie egoki deritzen objekzioak.

Zuzendaritza Batzarengandik guztiz bereiz jardungo du, baina beharrezko deritzon guztietan bildu ahal izango da berarekin. Hizpidez baina botorik gabe hartuko parte bilera horietan.

## SEIGARREN KAPITULUA

### ESTATUTUEN ALDAKETARI DAGOKIONEZ

**47. artikulua.-** Zuzendaritza Batzaren ekimenez edo inskribaturiko elkartearen %10ak eskaturik Batzak erabakitzen duenean aldaraz daitezke Estatutuak. Edonola ere, Zuzendaritza Batzak hiru bazkidek osaturiko Ponentzia bat izendatuko du, beronek Zuzendaritza Batzak berak ezarritako gida lerroei jarraikiz, aldaketa proiektua idatz dezan. Zuzendaritza Batzak ezarriko du proiektua amaitzeko epea.

**48. artikulua.-** Aldaketa proiektua zehaztutako epean amaitutakoan Presidentziak Zuzendaritza Batzak egiten duen lehenbiziko bilerarako Gaien Zerrendan sartuko du eta, berorrek onartuko du ala, kasu bada, Ponentziari itzuliko dio berrazter dezan.

Proiektua onartuz gero egiten den hurrengo Ez Ohiko Asanblada Orokorrerako Gaien Zerrendan sartzea erabakiko du Zuzendaritza Batzak edo bestela, ondore horretarako deialdia egingo du.

**49. artikulua.-**Asanbladarako deialdiarekin batera Estatutuen aldarazpena

*Patricia Sarriena*

*Quil Foente*



jasotzen duen testua ere helaraziko da, bazkideek egoki deritzen emendakinak Idazkaritzari bidaltzerik izan dezaten. Emendakin horien berri Asanblada Orokorrean emango da, beti ere eta gutxienez Idazkaritzak bilkura izan baino zortzi egun lehenago jaso badu.

Emendakinak banaka nahiz taldeka egin ahal izango dira, idatziz, eta testu alternatiboa jasoko dute.

## ZAZPIGARREN KAPITULUA

### ELKARTEAREN DESEGITEARI ETA ONDOREAREN APLIKAZIOARI DAGOKIONEZ

**50. artikulua.-** Federazioa honako hauek direla eta desegin daiteke:

- 1) Ondore horretarako antolaturiko Asanblada Orokorrean present dauden gehiengo osoaren aldeko botoaz Bazkideek horrela erabakitzen dutelako.
- 2) Kode Zibilaren 39. artikuluan ezarritako zioengatik.
- 3) Epairen batek berori ebatzi duelako.

**51. artikulua.-** Federazioa deseginez gero berori erabakitzen duen Asanblada Orokorra Batzorde Likidatzailea izendatuko du. Berau Zuzendaritza Batzako 5 kidek osatuko dute eta bera arduratuko da dauden fondoez.

Elkarteak bazkide eta hirugarrenetikiko dauzkan betebeharrak bete ondoren, soberako ondorea, egotekotan, Elkarte Federatuei emango zaie irabazi asmorik gabeko xedeetarako.

*Paloma Sarriena*

*Quil Beute*



## BATERAEZINTASUNEI BURUZKO KAPITULUA

**Erabateko bateraezintasunak.** BIGEko batzordekide kargua betetzeko erabateko bateraezintasuna ondorengo kasuetan gertatuko da:

- 1.- Izendapen politiko baten ondorioz edo maila horretako funtzionarioa izateagatik estatuko edo autonomia erkidegoko hezkuntza agintaritzan zuzendaritza karguren bat betez gero; kargua departamentuburu baino goragokoa bada betiere.
- 2.- Federazioarekin merkataritza harreman sendoak izanez gero. Edozein merkataritza harreman sendotzat joko da, BIGEren gastuen aurrekontuaren %5 gainditzen badu -langileen gastuak alde batera utzita-.
- 3.- Bateraezintasuna gertatuz gero, batzordekidearen zerrendak aukeratuko du haren ordezkaria zerrendakideen artean, batzordekideak berritzeko urteroko baldintza berberekin.

**Bateraezintasun erlatiboak.** BIGEko langileek Zuzendaritza Batzordean sartzeko aukera izango dute; betiere haien GEen ordezkariak badira Federazioaren aurrean. Hala ere, Batzorderako hauteskundeetarako aurkeztutako hautagai zerrendek pertsona bakarra izan ahal izango dute egoera horretan.

Zuzendaritza Batzordea behin osaturik, ezin izango du BIGEK kontratatutako bi kide baino gehiago izan; kasu horretan, boto gutxien jaso duen zerrendaren batzordekidea ordezkatu da, lehenik, eta boto gehien jasotakoarena, azkenik.

**Abstentziorako eta errefusatzeko arrazoiak.** BIGEko Zuzendaritza Batzordeko kideren batek, erabateko bateraezintasuna izan gabe, interes zuzena edo zeharkakoa izango balu Zuzendaritza Batzordeak joratu beharreko gairen batean, abstenitu egin beharko luke bozketan.

Honako kasuetan daude, tartean, interesak:

- BIGEko langileak: Federazioaren langileei edo bertako lan hitzarmenari

*Paloma Sarasa*  
*Quil Boente*

buruzko edozein gairi dagokionez; langileen ordainsariak edota lan kontuetan igotzeko edo zigortzeko erregimena, barne.

- Banketxeetako langileak: kredituak harpidetzerakoan edo bertan behera uzterakoan, kontu korronteak irekitzerakoan, edo beste alderdia kreditu erakunde bat denean.
- Aseguru etxeetako langileak: haien sektoreko negozioetan.
- Sustapen sozio-kulturala egiten duten taldeetako kideak, antzerki taldeetakoak, musika taldeetakoak eta antzeko taldeetakoak: eremu horietako kontratu partikularretan.

Zuzendaritza batzarkide izaera bateraezina da kargu publikoren bat eduki edo jarduera pribatuan aritzearekin, azken hauetan Federazioarekiko interes-gatazkarik sortu ahal baldin bada.

Hauteskunde Orokorrak edo Udalekoak egonez gero, burugo karguren bat daukatenez ezin izango dute hauteskunde-aldian Federazioa ordezkatu, ez eta euren kargua kanpainan erabili ere, eta hautatuak izanez gero utzi egin beharko dute kargua.

### XEDAPEN IRAGANKORRA

Eraketa Aktan agertzen diren Zuzendaritza Batzarkideek, behin behineko jitez izendatuak, lehenengo Asanblada orokorraren erabakipean jarriko dute euren izendapena.

### AZKEN XEDAPENAK

**LEHENENGOA.** Zuzendaritza Batzak dauka Estatutu hauek jasotzen dituzten manuak interpretatu eta egon daitezkeen hutsuneak betetzeko eskumena, beti ere Elkarteei buruz indarrean dagoen arautegiari atxikiz eta Asanblada orokorrak egiten duen lehenengo bileran aurkeztuz, onar daitezten.

**BIGARRENA.** Estatutu hauek, Zuzendaritza Batzak eta Asanblada Orokorrak

*Paloma Sarano*

*Olal Bente*



euren eskumenenekin bat eta Seigarren kapituluan aurreikusten denari jarraikiz baliagarritasunez hartzen dituzten erabakien bidez aldaraziko dira.

**HIRUGARRENA.** Asanblada Orokorrak Barne Erregimenari buruzko Araudi bat onartu ahal izango du Estatutu hauen garapen gisa, baina horrek ez ditu ezain kasutan ere berrietan jasotako manuak aldaraziko.

RAB / F-4

ACDATUAK

<p>Estatutu hauen ikus-onetsi dira, Euskal Autonomiaren Errolda Nazionalaren Erregelamendua onartzeko duen uztailaren 29ko 145/2008 Dekretuan eta horiek bat datozen gainontzeko arauetan zehaztutako ondoretarako.</p> <p>En 20.07.2009(e)ko ekainaren 25(e)(a)n.</p> <p>ERROLDAKO ARDURADUNA</p>	<p>Visados los presentes Estatutos, a los efectos determinados en el Decreto 145/2008, de 29 de julio, por el que se aprueba el Reglamento del Registro General de Asociaciones del País Vasco y demás normativa concordante.</p> <p>En 25 de junio de 2009</p> <p>EL/LA ENCARGADO/A DEL REGISTRO</p>
--	---

Quil Puente

